DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

ERAIKUNTZA ETA ERAISPEN HONDAKINAK (EEH) KUDEATZEKO ZERBITZUAREN PRESTAZIORAKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN PLEGUA

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

AURKIBIDEA

I. kapitulua- KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA
2.- KONTRATATZEKO BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA
3.- KONTRATUAREN IRAUPENA
4.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA
5.- LIZITAZIOAREN AURREKONTU OINARRIA ETA UNITATE PREZIOAK
6.- KONTRATUAREN PREZIOA
7.- FINANTZAZIOA
8.- ORDAINTZEKO MODUA
9.- PREZIOAK BERRIKUSTEA
10.- BEHIN BETIKO BERMEA

II. kapitulua.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

11.- ADJUDIKATZEKO PROZEDURA
12.- LIZITAZIO ELEKTRONIKOA
13.- JAKINARAZPENAK ETA MEZUAK
14. KONTRATATZEKO GAITASUNA
15.- ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK
16.- KONTRATAZIO MAHAIA
17.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK ETA PLEGUETARAKO SARBIDEA
18.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA
19. AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKI ETA TRATATZEA, ENPRESAK HAUTATZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA
20.- ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZAZIOA
21.- KONTRATUA EZ GAUZATZEKO ERABAKIA ETA PROZEDURARI UKO EGITEA

III. kapitulua.- KONTRATUA EGIKARITZEA

22.- KONTRATUA EGIKARITZEKO ARAUBIDE OROKORRA
23.- KONTRATUAREN ARDURADUNA
24.- KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK
25.- KONTRATUA EGIKARITU BITARTEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK KONTRATISTAK DAUKAN ERANTZUKIZUNA
26.- KONTRATUAREN ALDAKETAK
27.- DATU PERTSONALEN BABESA
28.- LANEKO OSASUNA ETA SEGURTASUNA
29.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK
30.- PRESTAZIOAREN HARRERA ETA BERME EPEA
31.- EZ-BETETZEENGATIK KONTRATISTARI EZARRIKO ZAIZKION ZIGORRAK
32.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK
33.- AZPIKONTRATAZIOA

IV. kapitulua.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA

34.- KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA
35.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK
36.- ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA

I. ERANSKINA: LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK
I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA: JAKINARAZPENAK ETA MEZUAK JASOTZEKO ONDORIOETARAKO DATUAK
II. ERANSKINA: ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea obra txikietako eraikuntza eta eraispen hondakinak (EEH) kudeatzea da, Debagoieneko Mankomunitatearen garbiguneetan edo bestelako bilketa zerbitzuetan jasotakoak, ondoren agregakin birziklatu edo bestelako eraikuntza material bihurtzeko, bat etorriz Baldintza Teknikoen Pleguan, plegu honetan eta kontratuaren adjudikazioduna izango den eskaintzan jasotako xehetasunekin.

Mankomunitatea arduratuko da eraikuntza eta eraispen hondakinak enpresa adjudikaziodunaren instalazioetara garraiatu eta bertan deskargatzeaz. Horrenbestez, kontratu honen xedeak ez du instalazio horietara iristeko garraioa barne hartzen.

Adjudikazioaren ondorioetarako, kontratua bi lotetan banatu da, jarraian adieraziko diren material kalitateei dagokienez; eskaintzak lote bakarrean edo bi lotetan aurkez daitezke.

1. LOTEA: HARRI HONDAKIN HAUTATUAK

- **Kalitatea:** kalitate altuko materiala, agregakin birziklatu edo bestelako eraikuntza material bihurtzeko.
- **LER kodea**: 17 01 07.
- **Materialak**: eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 9. artikuluan definitutako harri izaerako EEHi dagokie. Atal honetan sartzen dira hormigoizko hondakinak, adreiluak, teilak, zeramika materialak, harriak, harkaitzak eta antzekoak (konketak, komunak, azulejuak, baldosak, sukaldeko gainaldeak, etab.). Metalezko zenbait elementu ere barne har daitezke, lotura estua dutelako harri izaerako egiturarekin, esaterako txorrota metalikoak, hormigoizko ferralla elementuak, etab.
- **Desegokitasun maila:**
  - I. motakoa: ≤ %5 pisuan.
  - II. motakoa: ≤ %1 pisuan.

2. LOTEA: EEH EZ ARRISKUTSU NAHASTUAK

- **Kalitatea:** kalitate baxuagoko materiala, agregakin birziklatu edo bestelako eraikuntza material bihurtzeko. Helburu honetarako garbiketa eta sailkapen zehatzagoa egin behar da.
- **LER kodea**: 17 09 04.
- **Materialak:** maila handiagoan hautatu ezin izan diren materialei dagokie, erabiltzaileak jatorritik nahasketa maila altuarekin entregatu dituelako; horrez gain, 1. loteko kalitaterako baztertutako EEH ez arriskutsuei ere badagokie. Kalitate honetan jasotzen dira, oro har, harri izaerako EEHak, 1. loterako definitutakoen modukoak baina beste EEH ez arriskutsu batzuekin nahastutakoak.
- **Desegokitasun maila:**
  - I. motakoa: %5 baino gehiago pisuan.
  - II. motakoa: ≤ %1 pisuan.

Material desegokien motak:

- **I. mota**. EEH ez arriskutsuei eta harri izaerarik ez dutenei dagokie, birziklatzeko garbiguneetan gaika bildu EZ badira. Oro har, motrailu hondarrak, emokadurak, luzitzeak eta antzekoak, igeltsua, kartoi igeltsuko plakak, beira laua, etab. izaten dira. Garraioan I. motako desegoki gisa beste material batzuk ere egon daitezke, obra txikietan gutxiagotan sortzen direnak, esaterako isolamendu materialak, beira zuntzez indartutako plastikoa, asfaltozko geruza, etab.

- **II. mota** Hondakin ez arriskutsuak eta harri izaerarik ez dutenak dira, garbiguneetan gaika biltzen direnak birziklatzeko: egurra, papera/kartoia, metalak (salbu eta harri izaeradun materialen artean onargarritzat jotakoak), PVC edo beste plastiko edo hondakin organiko batzuk.

CPV kodea: 90514000-3. Zaborrak birziklatzeko zerbitzuak.

2. KONTRATATZEKO BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

Kontratazio espedienteko memoria teknikoan azaltzen dira Mankomunitate hau plegu honetan aipatzen den kontratua egitera eraman duten arrazoiak.

3.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratu honek bi urteko iraupena izango du, sinatzen den datatik zenbatzen hasita.

4. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia 227.969,40 eurokoa da, honako xehetasun hauen arabera:

- 1. lotea: 1.348,58 tona/urtean x 30 €/tona = 40.457,40 €/urtean + prezioaren %10 balizko aldaketengatik = 44.503,14 €.
- 2. lotea: 1.633,94 tona/urtean x 45 €/tona = 73.527,30 €/urtean + prezioaren %10 balizko aldaketengatik = 80.880,03 €.
- GUZTIRA: 125.383,17 €/urtean x 2 urte = 250.766,34 €.

5.- LIZITAZIOAREN AURREKONTU-OINARRIA ETA UNITATE PREZIOAK

1.- Lote bakoitzaren **urteko lizitazioaren oinarrizko aurrekontua** honako hau da:

	Urteko lizitazioaren zenbatekoa (BEZa kanpo)	Aplikatu beharreko BEZ tasa:	Urteko lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZa barne)
1. lotea, harri izaerako aukeratuak	40.457,40 €	10%	44.503,14 €

2. lotea, EEH ez arriskutsu nahastuak	73.527,30 €	10%	80.880,03 €

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 100.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua kalkulatzeko kontuan hartu dira honako kontzeptu, gastu orokor eta etekin industrialak:

- Langileen kostuak: %40
- Bestelako kostu zuzenak: %35
- Zeharkako kostuak: %15
- Beste gastu batzuk: %10

2.- Kontratu honen prezioa zehazteko unitate prezioen sistema erabiliko da. 1.- Lote bakoitzaren **lizitazioaren gehienezko unitate prezioa** honako hau da:

- 1. lotea: 30 €/tona, gehi 3 €, BEZaren % 10i dagokiona. Guztira: 33 €/tona.
- 2. lotea: 45 €/tona, gehi 4 €, BEZaren % 10i dagokiona. Guztira: 49,5 €/tona.

Unitate prezio horiek beherantz hobetu ahal izango dituzte lizitatzaileek. Unitate prezio hauetan gastu guztiak bildu dira.

6.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa kontratuaren adjudikaziotik eratorriko da. Kontratuaren prezioan txertatutakotzat joko dira aplikatu beharreko edonolako kanonak, tasak eta zergak, bai eta pleguetan jasotako betebeharrak betetzearen ondorioz adjudikaziodunarentzat sortzen diren gastu guztiak ere.

7.- FINANTZIAZIOA

Kontratu hau ekitaldi ekonomiko honetako Mankomunitateko Aurrekontu Orokorraren 3001.227.162.31.72 partidaren kargura finantzatuko da. Aurrekontu arloan eskumena daukan organoak konpromisoa hartuko du eragina duten etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan horretarako kredituak gordetzeko.

8.- ORDAINTZEKO MODUA

Prestazioa adostasunez jaso ondoren, ordainketa hilero egingo da.

Ordainketa egiteko aldez aurretik kontratistak faktura zehatza aurkeztu beharko du. Fakturaren kopurua kalkulatzeko aurreko hilabetean kudeatutako hondakinen tona kopuruari kontratua adjudikatu den prezio/tona aplikatuko zaio.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 198. artikuluan aurreikusitako epeen barruan ordainduko dira fakturak.

Bat etorriz SPKLren 32. xedapen gehigarriarekin, eta dagozkion fakturetan jaso dadin, adierazten da kontabilitate publikoan eskumenak dituen administrazio organoa eta Kontratazio Organoa eta unitate hartzailea Debagoieneko Mankomunitatea dela.

9.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetan prezioak ez dira berraztertuko, bat etorriz SPKLren 103.1 artikuluarekin.

10.- BEHIN BETIKO BERMEA

Eskaintzarik onenak aurkeztu dituzten lizitatzaileek behin betiko bermea eratu beharko dute kontratazio organoaren esku. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 5ekoa izango da, BEZik gabe, hau da:

- 1. lotea: 4.450,31 €.
- 2. lotea: 7.352,73 €.

Aipatutako bermea eratzeko hamar laneguneko epea izango da, eskea jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 108. artikuluan xedatutako edozein bitartekoren bidez eratu ahalko da.

Bermea gordailatuta egoteko epea amaitu ostean eta adjudikaziodunak kontratuan agertzen diren betebeharrak bete ostean, bermea itzuliko da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 111. artikuluan xedatutakoaren arabera.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

11. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA

Kontratu honen adjudikazioa prozedura ireki bidez egingo da, bat etorriz SPKLren 156. artikuluan eta hurrengo artikuluetan aurreikusitakoarekin. Izapidetze lanetan lege horretan jasotako jarduketak eta horiek garatzeko arauak jarraituko dira.

12. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio hori baliabide elektronikoen bidez izapidetuko da, bat etorriz Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen xedapenekin. Ondorioz, Mankomunitateak lizitatzaileekin izango duen harremana ere bide horietatik izango da.

13. JAKINARAZPENAK ETA MEZUAK

Espediente honekin lotutako jakinarazpen eta mezu guztiak elektronikoki egingo dira.

14. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Pertsona natural nahiz juridikoek kontrataziorako prozedura honetan parte hartu ahal izango dute, jarduteko gaitasun osoa eta gaitasun juridiko osoa badute eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute. Gainera, ezin izango dira SPKLren 71. artikuluak kontratatzeko ezartzen dituen debekuetako batean ere sartuta egon.

15. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Kontratu honen adjudikazioa prozedura irekiaren bitartez burutuko da, kalitate-erlazio harremanik onenaren printzipioan oinarritutako adjudikatzeko irizpide ugari erabiliz.

Kontratuaren adjudikazioaren oinarri izango diren eskaintzak baloratzeko irizpideak eta esleituko zaien haztapena honako hauek dira:

- Proposamen ekonomikoa: %50
- Harri materialen birziklatze eta tratamendu lanak: %17
- Beste material batzuen balorizazio eta tratamendu lanak: %17
- EEHen kudeaketaren egiaztagiriak eta trazabilitatea: %10
- Garraioa, pisatzea, deskargatzea eta kalitatearen kontrola: %6

1.- Balio judizio baten arabera kuantifikatzen diren irizpideak: 50 puntu

- **Harri materialen birziklatze eta tratamendu lanak.** 17 puntura arte. Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan atal honetan:

- Sailkapen, aukeraketa, birrintze edo, oro har, entregatutako materialei aplikatzeko proposatutako tratamenduen lanak, harri materialen aprobetxamenduaren berme onenak eskaintzen dituztenak agregakin birziklatu edo beste eraikuntza material bihurtzeko.

- Proposatutako lanen justifikazio, kohesio eta sinesgarritasun mailarik altuena, lizitatzaileek kontratuaren esku jarriko dituzten instalazio eta baliabideekin.

- Lizitatzaileak harri materialetatik lortzea hitzeman dituen produktuen ezaugarri teknikorik egokienak ondoren lotutako edo lotu gabeko eraikuntza aplikazioetan erabiltzeko, baita alderdi askotako justifikazio eta zehaztasun maila handiena ere. Produktu hauek erabilera komertzial edo eraikuntza material modura aplikazio erreala daukatela edo izaten ari direla egiaztatzeko eman daitezkeen bermerik onenak.

- **Beste material batzuen balorizazio eta tratamendu lanak.** 17 puntura arte. Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan atal honetan:

- Entregatutako materialei aplikatzeko proposatutako tratamendu lanak, beste material batzuen balorizazio energetikorako edo birziklatzeko edo zabortegian ezabatu beharreko zatikia gutxitzeko berme hobeak eskaintzen badituzte.

- Helmugarik egokienak, sailkapen eta hautaketa prozesuetan lortu nahi diren zatiki edo materialen balorizazio handiagoa lortzeko, eta instalazio propioetan lantzen ez badira.

- Kontratu honen iraunaldian zehar material edo zatiki horiek tratatzeko proposatutako helburuko kudeatzaileen konpromisoaren berme handiagoak.

- Proposamen zehatzak eta egokiagoak Mankomunitateko EEHetan ager daitezkeen material zehatzetarako (asfaltozko geruza, beira zuntzez indartutako plastikoa, material isolagarriak, etab.).

- Mankomunitateak entregatutako materialen artean ager daitezkeen hondakin arriskutsuen kudeaketari dagokionez ezarritako gutxienekoak hobetu dituzten proposamenak.

- Zabortegira bidaltzeko proposatutako zatiki edo materialei dagokienez, material edo zatiki horiek ezabatzea proposatzeko arrazoien justifikaziorik egokien eta zehatzena.

• **EEHen kudeaketaren egiaztagiriak eta trazabilitatea.** 10 puntura arte. Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan atal honetan:

- Entregatutako materialen kudeaketari dagokionez Mankomunitateari zuzendutako egiaztatze, informazio eta gardentasun maila handiagoa eta trazabilitate hobea eragingo duten proposamenak.

- Mankomunitateak entregatutako hondakinen nahitaezko dokumentazioa sortzeko eta izapidetzeko konpromisoa, osorik, IKS-eeM sistemaren edo sistema hori ordeztuko duen pareko beste baten bitartez (DCS edo nahitaezko beste batzuk), kudeaketa eskuordetuko entitate (KEE) edo horretarako pareko beste figura baten bitartez jardunez.

• **Garraioa, pisatzea, deskargatzea eta kalitatearen kontrola.** 6 puntura arte. Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan atal honetan:

- Deskarga ordutegiei dagokienez baldintza teknikoen pleguan ezarritako gutxienekoak hobetuko dituzten proposamenak, pisaketa tiketa emanez, edo erraztu edo malgutu egiten badituzte Mankomunitatearentzat materialak esleipendunaren instalazioetara eramateko garraio, pisatze eta deskarga lanak egitea eta antolatzea, edo lan horietako batzuk egin ahal badituzte Mankomunitateak egin beharrean.

- Entregatutako materialen kalitatearen kontrol eta jarraipenari dagokionez Mankomunitatearentzat berme handiagoa dakarten proposamenak, edo desadostasunak kudeatzeari dagokionez.

Mankomunitateak lizitatzailearen instalazioetan beharrezkotzat jotako egiaztapenak egiteko eskubidea izango du, aurkeztutako proposamenaren edukiari dagokionez.

Zerbitzuen prestazioaren proposamenean informazio garrantzitsua falta bada, informazio zehatza ez bada, edo informazio inkoherentea bada, horrek eragin negatiboa izango du balio judizio baten mendeko balorazio irizpideen puntuazioan.

2.- Automatikoki ebalua daitezkeen irizpideak: 50 puntu.


Onartzen diren proposamenetako eskaintza ekonomikoen puntuazioak kalkulatzeko, interpolazio lineala egingo da zerbitzua egiteko eskaintza ekonomikoa dagoen bi puntuek definitutako zuzenaren arabera. 4 interpolazio-zuzen zehaztuko dira eskaintza ekonomiko hoberenaren arabera.

A eremua
Eskaintza ekonomiko hoberenak (50 puntu) eta eskaintza ekonomiko hoberenaren %75eko jaitsieraren puntuak (45 puntu, puntuen %90) zehazten duten zuzena.

B eremua
Eskaintza ekonomiko hoberenaren %75eko jaitsieraren puntuak (45 puntu) eta eskaintza ekonomiko hoberenaren %50eko jaitsieraren puntuak (37,5 puntu, guztirakoaren %75) zehazten duten zuzena.

C eremua
Eskaintza ekonomiko hoberenaren %50eko jaitsieraren puntuak (37,5 puntu) eta eskaintza ekonomiko hoberenaren %25eko jaitsieraren puntuak (25 puntu, guztirakoaren %50) zehazten duten zuzena.

D eremua
Eskaintza ekonomiko hoberenaren %25eko jaitsieraren puntuak (25 puntu) eta lizitazio-prezioak (0 puntu) zehazten duten zuzena.



Hasiera batean, honako kasu hauetan dauden eskaintzak neurriz kanpokotzat edo ausarkeriazkotzat joko dira:

1. Lizitatzaile bakarra egonik, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino 25 unitate portzentual baino baxuagoa denean.

2. Bi lizitatzaile egonez gero, bestea baino 20 unitate portzentual baxuagoa dena.

3. Hiru lizitatzaile egonez gero, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino 10 unitate portzentual baxuagoak direnak. Dena den, batez bestekoa zenbatzean eskaintzarik garestiena baztertuko da, baldin eta batez bestekoa baino 10 portzentual handiagoa bada. Nolanahi ere, neurriz kanpokotzat joko da 25 unitate portzentualetik gorako beherapena.

4. Lau lizitatzaile edo gehiago egonez gero, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino 10 unitate portzentzual baino baxuagoak direnak. Hala ere, horien artean batez bestekoa baino 10 unitate portzentual handiagoak diren eskaintzak badaude, beste batez besteko bat kalkulatuko da horiek ez beste guztiekin. Nolanahi ere, gainerako eskaintzak hiru baino gutxiago badira, batez besteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatuko da.

Dena den, kontratazio-organoaren erabakia beharko da eskaintzak neurriz kanpokotzat edo ausarkeriazkotzat jotzeko, eta horren aurretik informazioa eskatuko zaie halakoa izan litekeen eskaintza egin duten lizitatzaileei, eta aholkularitza teknikoa bidezko zerbitzuari. Langileen kostuak aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa betetzeko adinekoak ez diren eskaintzak bazterrean utziko dira.

16. KONTRATAZIO MAHAIA

Kide hauek osatuko dute Kontratazio Mahaia:

- Mahai burutza:
    - Mankomunitateko presidentea
- Mahaikideak:
    - Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoa.
    - Mankomunitateko behin-behineko idazkari kontu-hartzailea
- Idazkaria:
    - Mankomunitateko behin-behineko idazkari kontu-hartzailea

17. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK ETA PLEGUETARAKO SARBIDEA

Lizitazio hau Mankomunitate honetako kontratatzailearen profilean iragarriko da. Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren barruan dago.

Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira aipatutako plataformaren bidez, 15 egun naturaleko epearen baitan, iragarkia agertu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita eta adierazitako epealdiaren azken eguneko 14:00etara arte.

Mankomunitate honen kontratatzailearen profilera helbide honen bidez sartu ahal izango da: www.debagoiena.eus. Leku horretan bertan pleguak eta dokumentazio osagarria eskuratu ahal izango dira.

Lizitatzaileek pleguei edo agiri osagarriei buruz bestelako informaziorik eskatzekotan, eskaintzak jasotzeko ezarri den azken eguna baino sei egun lehenago emango da, betiere eskaintzak jasotzeko ezarri den epe hori amaitu baino hamabi egun lehenago gutxienez egin bada eskabidea.

Bat etorriz SPKLaren 136.2 eta 3. artikuluan xedatutakoarekin, pleguei buruzko informazio gehigarria edo dokumentazio osagarria ezin izan denean adierazitako epeen barruan aurkeztu, edo eskaintzak lekuan bertan egindako bisita baten ostean edo pleguari erantsitako dokumentazioa *in situ* kontsultatu ostean soilik egin daitezkeenean, eskaintzak jasotzeko epea komeni bezain beste luzatuko da. Hala, ukitutako hautagaiek eskaintzak egin ahal izateko beharrezko informazio guztiaren berri izango dute.

Lizitazio prozedura honetan ez dira onartuko deskribatutako bide elektronikoetatik aurkezten ez diren eskaintzak. Ondorio horietarako, Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman edo Sektore Publikoko Kontratazio Plataforman erregistratutako erabiltzaile izatea ezinbesteko betekizuna da.

Eskaintza bateko dokumentuetako edozein ezin bada behar bezala ikusi, baimenduko da lizitatzaileak formatu digitalean aurkeztea akasdun fitxategian txertatutako dokumentua, betiere 24 ordu igaro baino lehen. Geroago aurkeztutako dokumentuak ezingo du inolako aldaketarik jasan eskaintzan sartutako jatorrizkoari dagokionez. Kontratazio-organoak egiaztatzen badu dokumentuak aldaketak izan dituela, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko.

Proposamenak Administrazio Baldintza Berezien Plegu honetan aurreikusitakora egokitu behar dira, eta horiek aurkezteak dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea klausula edo baldintza horiek, salbuespen edo erreserbarik gabe, eta Mahaiari eta Kontratazio Organoari baimena ematea Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Halaber, ezin izango du aldi baterako enpresa elkartean antolatuta proposamenik sinatu bakarka sinatu badu, ez eta behin-behineko elkarte batean baino gehiagotan ageri ere. Arau horiek urratuz gero, lizitatzaileak sinatutako proposamen bat ere ez da onartuko.

Informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legeriak eta adjudikazioa iragartzearen inguruan eta hautagai eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz SPKLaren xedapenek diotena baztertu gabe, hautagai eta lizitatzaile horiek eskaintzarekin igorritako informazioa isilpekoa dela adierazi ahalko dute, batez ere, sekretu tekniko edo komertzialak eta eskaintzaren alderdi konfidentzialak aipatzen direnean. Mankomunitateak ezin izango du informazio hau zabaldu dagokion lizitatzailearen baimenik gabe.

18. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA

Lizitatzaileek hiru gutun-azal elektroniko aurkeztuko dituzte, lizitatzaileak edo bera ordezten duen pertsonak sinatuta, eta gutun-azal bakoitzean klausula honetan zehaztutako edukia bilduko da.

“A” GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA, "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA"

Gutun-azal horrek honako dokumentu hauek izango ditu:

a) Gaitutako helbide elektronikoa.

Gaitutako helbide elektroniko bat aukeratzea, bat etorriz SPKLaren 15. xedapen gehigarrian xedatutakoarekin. Helbide horretan egingo dira kontratazio espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak. (I. eranskinaren gehigarria)

b) Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena.

Adierazpen horretan, lizitatzaileak adieraziko du Administrazioarekin kontratuak egiteko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela, bai eta baldintza-agiri honetan kontratua eskuratzeko ezarritako baldintzak ere. Adierazpena Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (EKAB) formulariora egokituko da.

Hala ere, kontratazio-organoak edo -mahaiak, prozedura behar bezala garatzen dela bermatze aldera, kontratuaren adjudikaziodun izateko agiri honetan ezartzen diren baldintzak betetzen direla frogatzeko agiriak aurkezteko eskatu ahalko die lizitatzaileei, betiere, adjudikazio egin aurretik.

c) Enpresen aldi baterako elkarte batean (ABEE) lehiatzen diren operadore ekonomikoen kasuan, kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du. Era berean, ABEEa formalki eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute kontratuaren adjudikaziodun izanez gero, eta horietako bakoitzak, izenak, inguruabarrak eta ABEEan izango duten partaidetza zehaztu beharko dituzte.

d) SPKLaren 75. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, erakunde horietako bakoitzak ere erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du.

Proposamenak aurkezteko epearen amaiera izango da Legean eta agiri honetan eskaturiko nahitaezko nortasun-, gaitasun- eta kaudimen-baldintzak betetzen direla egiaztatu ahal izateko une erabakigarria.

“B” GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- "BALIO JUDIZIO BIDEZ BALORATZEKO IRIZPIDEAK"; dokumentazio hau bilduko du:

Kontratu honen xede diren zerbitzuen prestazio proposamenaren ezaugarriak hobekien deskribatzen duen informazioa gutun-azal honetan bilduko da, hain zuzen ere, ingurumen ezaugarriak, ezaugarri teknikoak, operatiboak, funtzionalak, antolakuntzakoak, langileenak, baliabide materialenak eta bestelako ezaugarri garrantzitsuak, baita datu horiek egiaztatzeko lizitatzaileak egokitzat jotako dokumentazioa ere, balio judizio baten arabera baloratu beharreko irizpideak zuzen ebaluatzea ahalbidetuko dutenak.

Nolanahi ere, 2. loteko lizitatzaileek lote horretako materialei aplikatzea hitzeman dituzten kudeaketa eta tratamendua aski justifikatu eta argudiatu beharko dituzte, baita sailkapen eta aukeraketa lanetan lortuko dituzten material edo zatiki motetarako proposatutako helmugak ere, kontratuaren esku jarriko dituzten baliabide eta instalazioetan oinarrituz.

Gogoratu behar da zerbitzuen prestazioaren proposamenean informazio garrantzitsua falta bada, informazio zehatza ez bada, edo informazio inkoherentea bada, horrek eragin negatiboa izango duela balio judizio baten mendeko balorazio irizpideen puntuazioan.

“C” GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA- “AUTOMATIKOKI BALORATZEKO IRIZPIDEAK”

Gutun-azal honetan plegu honen II. Eranskinean jasotako eredura egokitutako eskaintza ekonomikoa jasoko da.

19. AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKI ETA TRATATZEA, ENPRESAK HAUTATZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA

Proposamenak aurkezteko epea gainditu ondoren, honako jarduera hauek burutuko dira:

1. “A” GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA

   Mahaiak «A» gutun-azala elektronikoki irekiko du eta gutun-azal horretan jasotako dokumentazioa kalifikatuko du. SPKLaren 141.2 artikulua aplikatuz, Mahaiak aurkeztutako dokumentuetan zuzen daitezkeen akatsak ikusten baditu, eragindako lizitatzaileei jakinaraziko die, eta hiru egun naturaleko epea emango die akats horiek zuzen ditzaten.

   Gainera, lizitatzaileei jakinarazten zaizkien zuzenketa-eskaerak Mankomunitatearen kontratatzailearen profilean eta Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman ere iragarriko dira.

2. “B” GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA

«B» gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa, balio-irizpenen mendean dauden irizpideak ulertzekoa, kontratatzailean profilean argitaratzen den toki, egin eta orduan irekiko da, gutxienez, 48 ordu lehenago.

3. “C” GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA

"B" gutun-azala ireki eta bertako dokumentazioa baloratu ondoren, Kontratazio Mahaiak "C" gutun-azala irekiko du, Mankomunitatearen kontratugilearen profilean adieraziko den egunean eta orduan.

Egintza horretan, eskaintza bakoitzean balio-irizpenen mendeko irizpideei adjudikatutako balorazioa emango da jakitera.

4. ESKAINTZEN SAILKAPENA

Irizpide guztiak ebaluatu ondoren, Kontratazio Mahaiak aurkeztu diren proposamenen sailkapena egingo du, beheranzko ordenan, eta kasuan kasuko jarduketak egin ondoren, kasuan kasuko proposamena igorriko du Kontratazio Organora.

Kontratua esleitzeko proposatu izanak ez dakar proposatutako lizitatzailearen aldeko eskubiderik, eta proposatutako lizitatzaileak ez du eskubiderik eskuratuko Administrazioaren aurrean, kontratua formalizatu arte.

Ezohiko moduan baxutzat jo daitezkeen proposamen bat edo batzuk identifikatuz gero, eskaintzen ezohiko baxu izaera aitortzeko aurretik eskaintza horiek aurkeztu dituen/dituzten lizitatzailearen edo, hala badagokio, lizitatzaileen entzunaldia eta dagokion zerbitzuko aholkularitza teknikoa behar ditu, SPKLaren 149. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz. Kasu horretan, Kontratazio Organoak, lizitatzaileak egindako justifikazioa eta eskatutako txostenak ikusirik, xedatuko du adjudikazioa ekonomikoki proposamen merkeenaren aldekoa izango dela, Administrazioak ase ahal izango duela balioztatzen dena.

Aitzitik, Kontratazio Organoak uste badu eskaintza ezin dela bete ohiz kanpoko balio baxuak sartzearen ondorioz, sailkapenetik baztertuko du eta adjudikazioa eskaintzarik onenaren alde izan dadila xedatuko du, sailkatutako ordenarekin bat etorriz.

Aipatutako hori guztia espedientean jasoko da, nahitaez zabaldu beharko diren kasuan kasuko akten bidez.

5. ERREKERIMENDUA LEHENENGO SAILKATUARI

Kontratazio Organoak Mahaiak helarazitako proposamena onartu ondoren, kontratazio zerbitzuek errekerimendua egingo diote lehen sailkatuari, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, jarraian zehaztutako jarduketak egin ditzan edo agiriak aurkez ditzan:

a) Parte hartzailearen edo haren ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten ordezkaritzan jardun bada, notario-ahalordea, Mankomunitate honek askietsia.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, eratu edo aldatzeko eskritura, bidezkoa bada, Merkataritza Erregistroan behar den moduan inskribatutakoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikatu ahal zaion merkataritza legediaren arabera inskribatuta egotea eskatu ahal denean. Hori beharrezkoa ez bada, eraketa-eskritura edo -agiriaren bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna, edota estatutuen edo sorrerako egintzaren berri ematen duen agiriaren bidez; agiri horretan jarduerak zein arau bete behar duen zehaztuko da eta, gainera, kasuan kasuko erregistro ofizialean egon beharko dira inskribatuta.

Espainiakoak ez diren baina Europar Batasuneko kide diren estatuetako enpresaburuen kasuan, egiaztatu beharko dute dagokion erregistroan izena emanda dutela, beren estatuaren legeriarekin bat eginez. Bestela, zinpeko aitorpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztu ahal izango dute, aplikagarriak diren erkidegoko xedapenei jarraikiz.

Gainontzeko enpresaburu atzerritarrek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute Espainiak dagokion estatuan (enpresaren helbidea zein lurralde eremutan dagoen aintzat hartuta) daukan Diplomazia Misio Iraunkorraren edo kontsuletxearen txostenaren bitartez.

c) Kontratuaren JEZaren epigrafe egokian alta emanda egotearen gaineko egiaztagiria, eta alta aurkeztuta uneko ekitaldia bada, edo JEZaren azken ordainagiria gainerako kasu guztietan. Kasu bietan, zerga horren matrikulan baja eman ez izanari buruzko ardurapeko adierazpena behar da.

d) Lizitatzailearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala azaltzeko egiaztagiriak, SPKLren 87. artikuluko a) hizkian eta 90. artikuluko a) hizkian ezarritako bideen bidez. Aipatutako bitartekoei dagokienez, enpresek kontratu zehatz honetarako kaudimenari lotuta bete behar dituzten gutxieneko baldintzak hauek dira:

Ekonomia- eta finantza-kaudimena: amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urteak, gutxienez, kontratuaren balio zenbatetsia izan beharko du.

Kaudimen teknikoa eta profesionala: azken hiru urteetan, kontratuaren xedea osatzen duten zerbitzuen izaera bera edo antzekoa duten zerbitzuen exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoak kontratuaren balio zenbatetsiaren % 60 edo handiagoa izan beharko du.

Horrez gain, honako hau egiaztatuko duen dokumentazioa ere aurkeztu beharko da:

- Enpresa lizitatzaileak baduela eraikuntza eta eraispen hondakin hauek proposameneko instalazioan jaso eta tratatzeko lanak egiteko baimena indarrean:
  Aurrekoa
  - 1. LOTEA: LER 17 01 07 eta 17 05 04.
  - 2. LOTEA: LER 17 09 04.

- Hondakinen tratamendu lanak egiteko proposatu diren instalazioak zein langileak baimenduta daudela hondakinen zerrenda europarreko 17. kapituluko hondakinen gutxienez 2.500 t/urte kudeatzeko (eraikuntza eta eraispen hondakinak), aipatutako tratamendu lanen bitartez.

AZALPEN OHARRA: Ekonomia zirkularrerako Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinetan jasotakoak dira hondakinen tratamendu lanak, eta hondakinak aldi baterako horretarako baimendutako instalazioetan biltegiratzea barne hartzen du.

Transferentzia planta eta 1. loteko proposamenetarako soilik: harri zatia birrintzeko proposatutako instalazioetako operadoreak sinatu eta zigilatutako konpromiso gutuna, adjudikazioduna izanez gero konpromisoa hartuz lizitatzaileak entregatuko dituen 1. loteko kalitateko material guztiak onartu eta tratatzeko kontratuaren indarraldi osoan, eta konpromisoa hartuz, halaber, urteko aitorpenak egiteko adjudikaziodunari beharrezko dokumentazioa eta informazioa emateko eta bere sinaduraz aitorpen horien edukia egiazkoa dela baliozkotzeko.

e) Lizitazio baten hainbat enpresek Aldi Baterako Enpresa Elkartean eratuta parte hartzen badute, elkartea osatzen duen bakoitzak egiaztatu beharko du jarduteko gaitasuna daukala, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Era berean, proposamenean ABEEren kide bakoitzak egingo duen xedearen zatia azalduko da, guztien kaudimenari buruzko baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

f) Enpresa atzerritarrek espainiar epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren pean jartzen direlako adierazpena egin behar dute, zuzenean edo zeharka kontratuak ekar litzakeen gorabehera guztietarako. Lizitatzaileak atzerritar jurisdikzio foruari (baleuka) uko egingo dio.

g) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzea edo kontratazio organoari modu zuzenean lortzeko baimena ematea.

h) Behin betiko bermea eratu izanaren ziurtagiria.

i) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko dokumentazioa.

Aurreko a), b) eta d) letretan aipatutako egoerak, kontratu honen xede diren hondakinen tratamendu lanak egiteko eskatutako baimenak salbu, Euskadiko Lizitzatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko, Estatutako Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriaren bidez edo Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeak 96. eta 97. artikuluetan xedatutakoarekin bat sailkapenaren ziurtagiri komunitarioaren bitartez egiazta daitezke. Atal honetan aipatutako ziurtagiriak modu elektronikoan igorri ahalko dira.

Errekerimendua ez bada zuzen betetzen adierazitako epean, lizitatzaileak eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da eta, kasu horretan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 3ri dagokion kopurua eskatuko zaio, zigor kontzeptuan; horrez gain, hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatu diren ordenari jarraikiz, agiri berdinak eskatuko zaizkio.

Atal honetan aipatutako errekerimenduaren ostean aurkeztutako dokumentazioak zuzen daitezkeen akatsak baditu, hiru egun naturaleko epea emango da horiek zuzentzeko. Bada, hori zuzenean jakinaraziko zaio lizitatzaileari, eta Mankomunitatearen kontratatzailearen profilean ere argitaratuko da.

20. ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio Organoak dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan erabakiko du kontratuaren lehenengo sailkatuari adjudikatzea, SPKLren 150.3 artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

Esleipena lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie, eta erakunde honetako kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den agiri administratiboan formalizatuz egingo da eta, hala, agiri hori edozein erregistro publikotarako sarbidea izateko titulu nahikoa izango da. Hala ere, kontratistak eskatu ahal izango du kontratua eskritura publikotzat jo dadin, dagozkion gastuak haren kargura izanik.

Kontratazio-arloko errekurtso berezia jar daitekeen kontratua denez, kontratua ezin izango da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun igaro arte.

Kontratazio-organoak esleipendunari eskatuko dio gehienez ere bost eguneko epean formaliza dezala kontratua, horretarako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Errekerimendu hori aurreko zenbakian adierazitako hamabost egun balioduneko epea igaro ondoren egingo da, kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik aurkeztu ez bada. Berdin jokatuko da errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etendura kentzen duenean.

Adjudikaziodunari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik kontratua ez bada formalizatzen adierazitako epealdiaren barruan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren (BEZik gabe) ehuneko 3 eskatuko zaio zigor moduan. Zenbateko hori lehenbizi behin-behineko bermearekin ordainduko da, eratu bada, 71. artikuluaren 2. apartatuaren b) letran ezarritakoa gorabehera.

Hala gertatzen denean, kontratua hurrengo lizitatzaileari adjudikatuko zaio, eskaintzen sailkapeneko ordenari jarraikiz, lege honen 150. artikuluaren 2. apartatuan ezarritako dokumentazioa aurkeztu ondoren, eta aurreko apartatuan ezarritako epealdiak aplikatuko dira.

21. KONTRATUA EZ GAUZATZEKO ERABAKIA ETA PROZEDURARI UKO EGITEA

Bat etorriz SPKLren 152. artikuluan aurreikusitakoarekin, kontratazio organoak, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak tarteko, kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartu ahal izango du. Horrez gain, prozedurari uko egin ahal izango dio kontratua prestatzeko arauak edo adjudikatzeko prozesua arautzen dutenak urratzen badira eta arau-hauste hori konpondu ezin bada. Kontratua ez egiteko nahiz prozedurari uko egiteko erabakiak kontratua formalizatu baino lehen hartu behar dira, eta bat etorri behar dira aipatutako artikuluan ezarritako baldintzekin.

III. kapitulua.- KONTRATUA EGIKARITZEA

22. KONTRATUA EGIKARITZEKO ARAUBIDE OROKORRA

Kontratua kontratistaren arriskupean egikarituko da; plegu honetan eta preskripzio teknikoen pleguan bildutako baldintzapean garatuko da eta, Mankomunitatearen zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolpean. Mankomunitateak eskumen horiek beteko ditu, idatziz zein ahoz.

Kontratistari edo bere mendeko pertsonei egozteko moduko ekintza edo hutsegiteen ondorioz arriskuan ipintzen bada kontratua behar den moduan betetzea, kontratua egikaritzeko modu zuzena berrezartzeko edo lortzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea eskatu ahal izango du Mankomunitateak.

23. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratua adjudikatzeko erabakian Mankomunitateko teknikari bat izendatuko da kontratuaren arduradun gisa, eta kontratuaren egikaritzeari buruzko jarraibideak emateko eta berrikusteko ahalmenak izango ditu.

24. KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202.1 artikuluan aurreikusiarekin bat etorriz, kontratu hau egikaritzeko honako egikaritze baldintza berezi hauek exijituko dira:

Gizarteari lotutakoak:

Kontratu hau lan-arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta osasunean aplikatu beharreko indarrean dauden lege xedapenak, arau xedapenak eta ohikoak betetzearen mende dago.

Lizitatzaileek adierazi egin beharko dute kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei ezarri beharreko hitzarmen kolektiboa zein izango den, kontratua esleituz gero.

Era berean, Mankomunitateak kontratua egikaritzean langileei aplikatuko zaizkien laneko baldintzei buruz eskatutako informazio guztia emango du.

Adjudikaziodunak, kontratua gauzatzen den bitartean, hitzarmen kolektibo aplikagarrian jasotako ordainsaria ordaindu beharko du, langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ez da inolaz ere hori baino kopuru txikiagorik ordainduko.

Aipatutako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira; horrenbestez, SPKLren 201. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, horiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izan daiteke, aipatutako legearen 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

25. KONTRATUA EGIKARITU BITARTEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK KONTRATISTAK DAUKAN ERANTZUKIZUNA

Bat etorriz, SPKLren 196. artikuluan xedatuarekin, kontratua betetzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrenei kalte-galerak sortuz gero, kontratista izango da horien erantzule.

26. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Mankomunitateak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiei jarraikiz, SPKLren 205. artikuluan berariaz aurreikusitako egoeretariko bat gertatzen denean, baldin eta lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Lehenago aipatutako balizko aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat baldin eta, modu isolatuan zein modu bateratuan, kopurua aldatzea eragiten badute, hain zuzen ere, kontratuaren hasierako prezioaren % 20 gaintzen ez duen neurrian, BEZik gabe. Kopurua dela eta, aldaketa kontratistarentzat nahitaezkoa ez denean, aldaketa horrek kontratistaren berariazko adostasuna exijituko du.

SPKLren 309. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kudeatutako tona kopurua areagotu ahalko da, betiere eragiten duen gastu igoera ez bada kontratuaren prezioaren % 10 baino handiagoa, kontratua aldatzeko kasuan kasuko espedientea izapidetzea beharrezkoa izan gabe.

27. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honek datu pertsonaletara sarbidea izatea baldin badakar, kontratistak datuak babesteari dagokionez estatu mailako zein Europar Batasuneko araudia bete beharko du.

28. LANEKO OSASUNA ETA SEGURTASUNA

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikulua aplikatuko da, enpresa-jardueren koordinazioari dagokionez.

29. HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak 6. artikuluan ezarria, eta honako

hauetan arautzen dena: 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzekoa; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko tokiko erakundeei buruzkoa, eta lege hau garatzen duten arauak; 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa; Debagoieneko Mankomunitatean onartutako hizkuntza irizpideak .

Zerbitzua emango duenak Debagoieneko Mankomunitatearekin dituen harremanak, **idatzizkoak zein ahozkoak** (kontratuak, fakturak, txostenak, bilerak, kontsultak, eta abar), Mankomunitatearen lanerako hizkuntzan izango dira, hau da, **euskaraz**, edo bestela, hala onesten bada, euskaraz eta gazteleraz.

Kontratuaren arduradunak bertan ezarritako hizkuntza-baldintzak betetzen direla egiaztatuko du. Hori gainerako baldintzekin egiten den antzera eta antzeko epealdietan egin beharko du, eta horren berri ere emango du; Euskara Zerbitzuak honen berri izango du eta behar izanez gero zuzentzeko neurriak proposatuko ditu.

Baldintza agiri honetan jasotzen diren hizkuntza-baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, eta ez betetzeak gainerako baldintzak ez betetzeak eragiten dituen ondorio berak ekar ditzake, hau da, zigorrak aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

30. PRESTAZIOAREN HARRERA ETA BERME-EPEA

Kontratuaren xedea den prestazioa bukatu eta gehienez hilabeteko epean modu formal eta positiboan hartuko da.

Era berean, HIRU HILABETEKO epea ezarri da, harrera formala egiten den egunetik zenbatzen hasita, hain zuzen ere, SPKLak eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorrak aurrez ikusten duenerako bermea. Epe horretan, kontratista egindako lan edo zerbitzuetan ager daitezkeen akats edo hutsuneen erantzulea izango da.

Epe hori administrazioak oztoporik jarri gabe igaro ondoren, erantzukizunetik aske geratuko da kontratista.

31. EZ-BETETZEENGATIK KONTRATISTARI EZARRIKO ZAIZKION ZIGORRAK

A. Kontratua betearazteko epeak ez betetzea

Kontratista, berari leporatu ahal zaizkion arrazoiak direla medio, kontratua betearazteko epea betetzen atzeratuz gero, epe osoan zein, hala badagokio, epe partzialetan, administrazioak kontratua bertan behera utzi ahalko du, eta bermea galdu, edo zigorrak ezarri ahalko ditu; zigorrak 0,60 eurokoak izango dira eguneko, kontratuaren prezioaren 1.000 euroko tarte bakoitzeko, BEZa kanpo.

Atzeratu izanaren ondorioz ezarriko diren zigorrak kontratuak daukan prezioaren %5en multiploak badira, Kontratazio Organoak eskumena edukiko du kontratua suntsiarazteko; bestela, horrekin segitzea eta beste zigor batzuk ipintzea erabaki dezake.

B. Prestazioen betearazpen partzialak ez betetzea

Berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratistak kontratuan definitutako prestazioen zati bat betetzen ez duenean, administrazioak bi aukera izango ditu: suntsiaraztea edo zigorrak jartzea. Zigorra kontratuaren prezio guztiaren ehuneko 10 izango da.

C. Oker burutzea

Prestazioa oker burutzen bada, administrazioak zigorrak jarri ahal izango ditu, eta horietako bakoitzaren zenbatekoa ezin izango da izan kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino handiagoa, BEZa kanpo. Zigor horien guztizko zenbatekoak ezin izango du adostutako prezioaren ehuneko 50 gainditu.

D. Ingurumenari, gizarteari edo lanari buruzko betebeharrak ez betetzea

Ingurumenarekin, arlo sozialarekin edo lan arloarekin lotuta kontratistak dituen betebeharrak bete ezean, bereziki soldaten ordainketan behin eta berriz atzeratzen bada edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritako soldata baldintzen aplikazioa larria eta dolozkoa bada, Mankomunitateak, SPKLren 201. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, zigorrak jarri ahal izango ditu, eta horietako bakoitzaren zenbatekoa ezin izango da izan kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino handiagoa, BEZa kanpo. Zigor horien guztizko zenbatekoak ezin izango du adostutako prezioaren ehuneko 50 gainditu.

E. Azpikontratatzaileekiko betebeharrak ez betetzea

SPKLren 217. artikuluan xedatutakoa gorabehera, kontratistak ez baditu betetzen azpikontratatzaileekiko dituen betebeharrak, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango ditu,. Zigorra ezingo da izan kontratuaren prezio guztiaren 100eko 10 baino handiagoa, BEZa kanpo, eta zigor horien guztizko zenbatekoak ezin izango du adostutako prezioaren ehuneko 50 gainditu.

32. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Sektore Publikoko Kontratuen gaineko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. eta 313. artikuluetan ezarritako arrazoiengatik suntsiarazi ahal izango da zerbitzu kontratua.

33. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin azpikontratatu ahal izango du prestazio honen emakida partziala. Edonola ere, azpikontratazio hori Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. eta 216. artikuluetako baldintzak betetzearen mende egongo da.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA

34. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu hau oinarri hartuta egiten den kontratuak izaera administratiboa izango du eta plegu honek eta horri erantsitako gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute.

Bertan aurreikusten ez den guztiari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoari jarraituko zaio, eta lege horrekin kontraesanik ez duen guztiari dagokionez, honako hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Araubide Orokorrean (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsian), maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuan (horren bidez garatzen da partzialki Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea) eta administrazio publikoen kontratazioan aplikagarri diren, hala badagokio, gainerako arauetan.

Administrazio Baldintza Berezien Plegu honen eta espedienteari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak badaude, plegu honetan xedatutakoa nagusituko da.

35. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioari dagozkio kontratua interpretatu, betetzeko orduan sortzen diren zalantzak ebatzi, interes publikoa dela eta aldatu, suntsitzea erabaki, kontratuaren egikaritzeagatik kontratistari egotzi ahal zaion erantzukizuna aitortu, egikaritzea eten, suntsiaraztea erabaki eta horren ondorioak zehaztea, betiere SPKLk eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorrak ezarritako mugekin eta horien baldintza eta ondorioen arabera.

36. ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA

Kontratu honetatik eratorri daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio organoak ebatziko ditu. Organo horren erabakiek administrazio bideari amaiera emango diote, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean zuzenean aurkaratu ahal izango dira. Hori guztia gorabehera, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44. artikulutik 60.era artekoek araututako kontratazioaren arloko errekurtso berezia jarri ahalko da, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako beste edozein.

EGINBIDEA.- Plegu hau Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zuen 2022ko ekainaren 6an egindako bilkuran.

Arrasaten, 2022ko ekainaren 6an.
BEHIN BEHINEKO IDAZKARI KONTU-HATZAILEA
Ander Elortondo

I. ERANSKINA

LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKOKO SISTEMA.

1. Kontratatzeko prozeduraren izapideetarako (dokumentuak bidaltzea, kontratua sinatzea, jakinarazpenak jasotzea...) lizitazio elektronikoko sistema erabiltzeko baldintzak

1.1. Administrazio baldintzak:

a) Izapidetze elektronikorako Debagoieneko Mankomunitateak baimendutako ziurtagiri digitala izatea. Gaur egun ziurtagiri elektroniko horiek honako hauek dira:

- Izenpe (Entitatea, Herritarra, Entitatearen ordezkaria).
- FNMT (Entitatea, Herritarra, Entitatearen ordezkaria).
- e-NAN
- Camerfirma (entitatea, herritarra)

b) Horrelako egoeraren batean egotea:

a) Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan alta emanda izatea eta indarrean dagoen ziurtagiria izatea

b) Lizitazio elektronikorako aldi bateko gaikuntza sisteman alta emanda izatea.

c) Operadore ekonomiko bi edo gehiago elkarrekin lehiatzen badira, modu formalean ABEE gisa eratzeko konpromisoarekin, ABEEren konpromisoa aldi bateko gaikuntza sisteman erregistratuta egon behar da.

1.2. Baldintza teknikoak:

Elektronikoki izapidetzeko baldintza teknikoei buruzko informazioa esteka honetan dago eskuragarri:
http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-content/es/contenidos/informacion/licitar_electronicamente/es_02/requisitos_tecnicos.html

1.3. Lizitazio elektronikoari buruzko gorabeherak edo zalantzak argitzeko euskarri zerbitzua: 945016298.

2. Lizitazio elektronikoko sistemara sartzeko era:

Sistema erabiltzeko honako atari honetara jo behar da:

www.contratacion.euskadi.eus

II.- JAKINARAZPEN ETA MEZU ELEKTRONIKOAK.

Jakinarazpen eta mezu elektronikoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez egingo dira. Hona hemen sarbidea: https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/. Jakinarazpenak edo mezuak bidaltzen diren bakoitzean enpresak bidalketari buruzko abisua jasoko du **I. eranskin** honen **gehigarrian** horretarako emandako helbide elektronikoan.

I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.- JAKINARAZPENAK ETA MEZUAK JASOTZEKO ONDORIOETARAKO DATUAK

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN-IFZ**

	Norbere izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean
	Ordezkatuaren izen soziala:
	Ordezkatuaren IFK:

* Enpresen aldi baterako elkarteen kasuan, eredua egokitu ABEE sortuko duten enpresa bakoitzeko ordezkari guztien datuak gehitzeko.

AITORTZEN DU(TE)

Kontratua adjudikatzeko prozedurarekin (izendapena eta espedientearen kodea) loturako jakinarazpen eta mezuen ondorioetarako:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izendapena	**Erreferentzia kodea**
Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko zerbitzua	ZERBITZUAK 05/2022

Jakinarazpenak eta mezuak elektronikoki egitearen ondorioetarako datuak honakoak dira[1]:

JAKINARAZPENETARAKO ETA MEZUETARAKO DATUAK

Kalea/Plaza/Etorbidea/...	**Zk.**	**Pisua**	**Aldea**
Udalerria	**PK**	**Probintzia**	
Telefono-zenbakia	**Mugikorra**		
Jakinarazpenetarako helbide elektronikoa:			
Hartzaile izango den pertsona:			
Jakinarazpena/mezua jasotzeko hautatutako hizkuntza:	Euskara		Gaztelania

[1] *Eskaintza edo eskaera aurkeztean, adjudikaziodun suertatzekotan hainbat enpresak enpresen aldi baterako elkarte bat formalki eratzeko konpromisoa aurkezten badute, helbide bakar bat aurkeztu beharko dute jakinarazpen eta mezuak jasotzeko ondorioetarako.*

II. ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFZ**

	Norbere izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izendapena	**Erreferentzia kodea**
Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko zerbitzua	ZERBITZUAK 05/2022

Adierazitako kontratazio espedientearekin lotuta exijitzen diren baldintza eta eskakizunen berri duela, honako **ESKAINTZA EKONOMIKO** hau proposatzen du:

- ……lotea,.....€/tona, gehi ……€ /, BEZaren % 10i dagozkionak. Guztira: €/tona

Lekua eta data:

Enpresaren izena	*Sinadura*